






UNTZAGAKO PLAZA BIXAK ordu batzuetarako behintzat sagardotegi bihurtu ziran aurreko zapa-tuan, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako Sa-gardo Egunari esker. Eguraldixa be alde, ehundaka lagun animau ziran txotx egiñ eta 20 sagardotegi di-ferentetik ekarritako sagardua probatzera. Goizeko ekitaldixan, duda barik, protagonista nagusixak Ore-retatik ekarritako tolaría eta bertara botatako saga-rleri zumua etaratzeko jo eta ke, etenbarik jardun eben gaztiak izan ziran. Ikusmiñ haundixa sortu eban, baitta be, Urkizutik Untzagaraiño, Musika Es-kolako trikitilarixak lagunduta sagarrak gurdixan ekarri zittuan Pantxika astuak. Txikixenak txandia eta dana itxoittek prest eguazen, astuari laztanen bat egitteko.

Geratu barik jardun eben, baitta be, egun osuan ba-natu ziran pintxo goxuak soziedadietan preparatzen jardun eben lagun guztiak eta, zelan ez, 2.000 boti-llak zerbitzatzen egon ziranak be. Eskerrik asko jai-xan parte hartzera animau ziñazien guztieri eta la-guntasuna emon deskuzuen guztieri be. Datorren urtian atzera be alkar ikustia espero dogu.





sagardotegi laguntzaileak:

 Arizia	 ARTOLA	 irvin astiazaran	 BEREZIARTUA Cela BEREZIAN - ASTIGARRAGA (GIPUZKOA) 100% NATURAL
 GARTZIATEGI SIDRA NATURAL	 BASATEGI sagardotegia	 DisHerLop, S.L. DISTRIBUCIONES HNOS. LÓPEZ	 Mina SIDRA NATURAL de Astigarraga
 OTSUA-ENEA	 TXINDUTEGI SAGARDOTEGIA NEKAZALTURISMOA	 REZOLA	 ZAPIAIN Astigarragako Sagardoa
 AXPE SAGARDOTEGIA AXPE Baserría - Atxondo 48270 Martina-Kemeri	 ITURRIETA TREBIÑU Sidra Natural - Sagardoa	 LARRALDEA	 TXOPINONDO ASCAIN-AZKAINE
 EL MURO	 CORINA SIDRA NATURAL	 Alenendez	 Sidra MANZANOVA